

PRENTSA OHARRA, OSAKIDETZA-OSASUNAREN EUSKAL ZERBITZUA ZUZENBIDE PRIBATUKO ERAKUNDE PUBLIKOAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA, 2010.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Osakidetza-Osasunaren Euskal Zerbitzua Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publikoaren fiskalizazio txostena mamitu du, 2010eko ekitaldiari buruzkoa. Txostena Osokoaren kideek aho batez onetsi dute.

Fiskalizazio txostenak legezkontasunari buruzko alderdiak besarkatzen ditu aurrekontu eta kontabilitate, langileria eta administrazioko kontratazioaren alorrean; baita kontuen aurkezpenarekin lotutako kontularitzako alderdiak ere. Horrezaz gain, Osatek, SA fiskalizatu da.

Legezkontasunaren atalean Epaitegiak uste du Osakidetzak eta Osatekek zuzentasunez bete dutela ekonomia-finantza jarduera arautzen duen lege arautegia, txostenean bertan zehaztu diren hainbat akats salbuetsita.

Bada, Osakidetzaren kasuan eta kontratazioaren atalari lotuta, HKEEK adierazi du urratu egin dituela hainbatetan administrazioko kontratazioan buru egiten duten arauak eta esaterako, zenbait espedientetan -txostenean espediente-zenbakia eta zenbatekoa zehazturik daude- kontratuaren iraupen aldiak legezko gehiengo muga gainditu du; kontratuen luzapenek pleguetan aurreikusitako gehienera luzagarri den legezko kopurua gainditu dute; ez da egiaztatu eskusibotasunagatik negoziatutako prozedura erabiltzeko bide emango duten suposamenduak daudela; esleipena ez da behar hainbat arrazoitu edo ez dira pleguetan aurreikusitako irizpideak baliatu edo aurreikusitakoaz besteko haztapena eman zaie; luzapen jakin batzuetan aldaketak egin dira eta hasierako aurrekontua % 30 baino ehuneko handiagoan gehitu dute, lehia irizpideak urratuz; eta azkenik, publikotasun eta lehia printzipioa urratu da hainbat hornigai kontratu txiki modura izapidetzean.

Langileriarri dagokionez, HKEEK 2010ean Erakunde Zentralaren zenbait izapidetan jasotakoari jarraiki, hainbat produktibitate-osagarriren ordainketa azpimarratu du; horiek, ordea, ez zeuden aurreikusiak Osakidetzako langileen lan baldintzak arautzen dituen Erabakian.

Osakidetza eta Osateken Urteko Kontuei dagokienez, Epaitegiak aldeko iritzia plazaratu du bien gainean; salbuespen bakarra Osakidetzari dagokio, izan ere, ez baititu egoeraren balantzean erregistratu zenbait langileren erretiro osagarrien kontzeptuko obligazioak, ez 60 eta 64 urte bitartean erretiroa hartzen duten langileen borondatezko erretiroagatiko saria ere; horrek guztiak, aktuario azterketa baten arabera, 2010eko abenduaren 31n 173,8 milioi euroren zenbatekoa egin du.

Berebat, HKEEK hainbat irizpen plazaratu ditu barne kontrolerako sistemari eta kudeaketa prozedurei buruz.